

## 2019ko udal aurrekontuak onartuak

Gastu maila altuagoa eta gizarte babes handiagoa

**Urriaren 29ko Ohiko Batzarrean EAJ-PNV eta PSE-EEren aldeko bozkekin 2019ko udal aurrekontuak onartu ziren. EH Bilduk kontrako bozka eman zuen inolako kritikarik egin gabe. 2019ko aurrekontua 6.656.293 €koa izango da, aurtengokoarekin alderatuz %2,75eko igoera suposatzen duelarik. 2019ko kontu publikoek inbertsioen gehikuntzari bizkarra ematen diete eta legealdi honetan sustatzen ari garen gizarte politikak bultzatzen ditu.**

Sailka, **Gizarte Zerbitzuetako** aurrekontuak %1,60ko igoera izango du, batetik, berdintasunaren aldeko partidara 19.000€ bideratuko dira, eta bestetik, larrialdi kasuetan ostatu emateko etxebizitzetara bideraturiko diru kantitateak %52ko igoera izango du.

**Euskarako** aurrekontua %5,18 areagotuko da eta **kiroletakoa** %4,73, sail honen barruan Gipuzkoa Birara (emakumezkoen txirrindularitza) eta Irrintzi Elkartearen Txirrindularitza Eskolara bideraturiko partidak nabarmentzen direlarik. Eskola Kirolarentzako ekarpena %10 igoko da.

**Ingurumena eta Mendiei** dagokionez, Amasamendi Baserritarren Elkartearantzako (2.500€) diru kantitatea mantendu egiten da eta Amasako azokaren prestaketarako bideraturikoa nabarmen igotzen da (4.500€ guztira).

**Alkatetzako** aurrekontutik 50.000 €ko partida garrantzitsu bat Amasa eta Villabona bat egin zuteneko 400. urteurreneko oroitzapen ekitaldira bideratuko da, eta Bakeola, memoria historikoa eta gizarte bizikidetzaren sustapenera zuzenduriko Elkartearantzako partida ekonomikoa mantentzen da.

**Inbertsioei** dagokionez, hauek dira aurrekontuko ekimenik garrantzitsuenak:

- **Espaloiak berritu eta asfaltatzeko lanak:** 133.000 €ko aurrekontuarekin herritarrek eginiko berregokitzapen eskaerari erantzuna emango zaio, oraingo egoerak hainbat arazo sortzen baititu (erorketak, etab.). Obrak Santiago Erresidentziaren ondoan hasiko dira, oraingo egoerak pertsona nagusiengan eragiten duen arazoekin amaitzeko.
- **Txermineko aparkalekua** (110.000 €): inbertsio partida honen bitartez, asfaltazio, mugaketa eta aparkalekuko plazen seinaleztapena hobetuko duten lanak burutuko dira bertako espazioa hobeto aprobetxatzeko asmoz. Kamioientzako parkinga kenduko da (gehienak Villabonatik kanpokoak dira), turismo ibilgailuentzat aparkalekua lehenetsiz. Modu honetara, espazio honen egoera nabarmenki hobetzearekin batera, hirigunetik 5 minutura kokatua dagoen aparkaleku honetan jendeak kotxea uztea sustatuko da, hirigunean araz kontrako aparkalekuak eta auto pilaketak ekidinez.
- **Umeentzako parkeak:** umeei zuzenduriko jolaslekuak berritzeko politikari bultzada emango zaio. Orain dela hilabete batzuk Bizkaia eta Behenafarroa (Etxeondo eta Larrea) parkeak berritu dira eta 30.000 €ko ekarpen berri honekin beste parke batzuk berrituko dira. Gainera, 2018ko aurrekontura egingo den karguarekin Ernio-bea kaleko parkea ere berrituko da (Txistulari Plaza ondoan kokatua dagoena).

- **Kiroldegiko kantzaren konponketa** (20.000 €): asko erabiltzen den espazioa da eta zorua altxatzen ari denez konpondu egingo da.
- **Fleming Eskolako obrak**: legealdi honetan martxan jarritako hainbat urtetarako planarekin jarraituz, 70.000 €ko bideratuko da eta ondoren zentroko arduradunekin zehaztuko da zertara zuzenduko den diru hori.
- **Seaska Haur Eskolako obrak**: 10.000 € bideratuko dira eta ondoren zentroko arduradunekin zehaztuko da zertara zuzenduko den diru hori.
- **Oria pasealekuko (Aduna bidean dagoena) barandaren konponketa**: segurtasun arrazoiengatik, 20.000 € bideratuko dira egoera txarrean aurkitzen diren barandak berritu edo aldatzeko.

Amasa-Villabona datorren urteko aurrekontuak onartu dituen Gipuzkoa mailako lehenengo herrietako bat izan da. Aurreneko aldia da, hamarkada askoren ondoren, udalak udazken hasierarako bere kontuak prest dituela eta hau, Maite Izagirrereren hitzetan *“oso berri ona da herritar guztiontzat”*. Gainera, Alkatearen ustez *“aurrekontu tramitazio hau eredugarria izan da forma eta epeei dagokionez. Onarpen honekin, legealdi honetan hasiera eman genion hobekuntza ildoari jarraipena emanez, 2019ko urtarrilaren 1etik udalak inbertsio eta proiektuetarako baliabide ekonomikoak izango dituela ziurtatzen dugu. Hau ez zen lehen gertatzen, planifikazio on baten ondorioa da. Horregatik, amasa-billabonatar guztion izenean, udal teknikariei euren gaitasun eta profesionaltasun bikaina eskertu nahi diegu, aurrekontu hauek denbora nahikoarekin onartzeko beharrezkoak izan dira eta.”*

## Aprobados los presupuestos municipales para 2019

### Mayor nivel de gasto y más protección social

El Pleno Ordinario del pasado 29 de octubre aprobó, con los votos favorables de EAJ-PNV y PSE-EE y el voto en contra de EH Bildu, quien no realizó ninguna crítica al respecto, los presupuestos municipales para el año 2019, por un importe de 6.656.293 €, lo que supone una subida porcentual de 2,75 % respecto a los del año en curso. Las cuentas públicas del 2019 suponen un espaldarazo a la línea de aumento de inversiones y fomento de la política social desarrollada esta legislatura.

Por departamentos, **Servicios Sociales** incrementa su presupuesto en un 1,60%, destacando las partidas correspondientes a fomento de la igualdad que alcanzan la cifra de 19.000 € y la de alojamientos para situaciones de emergencia que experimenta un incremento del 52%.

El presupuesto de **Euskera** sube un 5,18% y el de **Deportes** un 4,73%, destacando las partidas destinadas a la Gipuzkoa Bira (ciclismo femenino) y a la Escuela de Ciclismo de la Sociedad Irrintzi. La aportación a Eskola Kirola también aumenta un 10%.

En cuanto a **Medio Ambiente y Montes**, se mantienen las cuantías económicas para Amasamendi Baseritarren Elkartea (2.500€) y aumenta notablemente la relativa a la organización de ferias en Amasa (4.500€ en total).

El presupuesto de **Alcaldía** incorpora una importante partida de 50.000 euros destinada a los actos conmemorativos del 400 aniversario de la unión entre Amasa y Villabona (1619-2019) y mantiene la partida de la Asociación Bakeola, destinada a la recuperación de la memoria histórica y al fomento de la tan necesaria convivencia social.

En cuanto a **inversiones**, éstas son las principales actuaciones presupuestadas:

- **Trabajos de arreglo y asfaltado de aceras:** con un presupuesto de 133.000 € se inicia así una labor de reacondicionamiento muy solicitada por la ciudadanía, ya que su mal estado ocasionaba múltiples problemas (caídas, etc.). Las obras comenzarán junto a la Residencia Santiago, para poner fin a los numerosos problemas que genera a las personas mayores la situación actual.
- **Parking de Txermin (110.000 €):** a través de esta partida de inversiones, se van a realizar labores de asfaltado, delimitación y señalización de plazas de parking para un mejor aprovechamiento del espacio etc. Se eliminará el parking para camiones (la inmensa mayoría de fuera de Villabona) priorizando el aparcamiento para vehículos turismo. La idea, además de mejorar sustancialmente el estado actual de este espacio, es fomentar que se aparque en esa área situada a escasos 5 minutos a pie del centro, evitando así problemas de aparcamientos irregulares y embotellamientos en el casco urbano.
- **Parques infantiles:** se da un nuevo impulso a la política de renovación de zonas de juego para niños. Hace pocos meses, se han renovado los parques Bizkaia y Behenafarroa (Etxeondo y Larrea) y con esta nueva dotación de 30.000 € se renovarán otros parques.

Además, con cargo a los presupuestos de 2018, se renovará también el parque de la calle Erniobea (junto a Txistularien Plaza).

- **Arreglo de la cancha del polideportivo (20.000 €):** debido a su intensa utilización y a que el suelo se está levantando, se procederá a su arreglo.
- **Obras en el Colegio Fleming:** siguiendo el plan plurianual de inversiones acordado esta legislatura, se destina una partida de 70.000 €, a definir en colaboración con los responsables del centro.
- **Obras en Seaska Haur Eskola:** 10.000 € cuyo destino se acordará con la dirección de este centro educativo infantil.
- **Arreglo de la barandilla del paseo peatonal del Oria (hacia Aduna):** se destinan 20.000 € para arreglar, por razones de seguridad, todas las barandillas caídas o en mal estado e incorporar algunas nuevas.

Amasa- Villabona ha sido uno de los primeros municipios de Gipuzkoa que ha aprobado sus presupuestos para el próximo año. Es la primera vez, en muchas décadas, en que el consistorio tiene listas sus cuentas para inicios del otoño y esto, para Maite Izagirre, “es una muy buena noticia para el conjunto de la población”. Según señala la alcaldesa, “esta tramitación presupuestaria ha sido modélica en cuanto a formas y plazos. Con esta aprobación, que se enmarca en la línea de mejora continua que emprendimos a inicios de mandato, aseguraremos que el ayuntamiento tendrá disponibilidad económica para proyectos e inversiones desde el 1 de enero de 2019. Eso no ocurría antes y es consecuencia de una buena labor de planificación. Por ello, en nombre de todos los amasa-villabonatarra, quiero agradecer y reconocer la excelente disposición y la gran profesionalidad demostrada por los técnicos municipales para que los presupuestos se hayan aprobado con la suficiente y necesaria antelación”.